1 PARTAIDEA: Ikusgaitasunik, baina adibidez ikusten baduzu Ingalaterra, Irlanda, Zelanda Berria...

3 PARTAIDEA: Baina egia da, mutilen partiduetan asko igartzen dela, bakarrik ikusi behar da mutil partiduetan dagoen grada eta gurean dagoena.

4 PARTAIDEA: Nik ikusi nituen emakumezkoen 6 nazioak (honek marka utzi zidan) gamarra baten jolasten.

1 PARTAIDEA: Guk aurrean adibidez mundialera goaz, Irlanda, hau da emakumezkoen mundialera eta bakarrik ikusi behar da sarreren prezioa. Gu goaz hiru partiduetara eta ez dakit pasatu den 50 eurotik hirurak eta horietako bat finala da, hots, flipatzekoa. Eta mutilenera ez gara joan igual kostatu daitezkeelako 400 euro baino gehiago.

4. **GALDERA:** *Hori egia da, orain komentatu duzuen, nork sortzen du bereizketa gizartea berez edota kirolariak?*

2 PARTAIDEA: Nola?

4 PARTAIDEA: Ba nik uste dut gizarteak sortzen duela, gizarte patriarkatuan bizi bagara horrek eragina esparru guztietan du, eta aparte, kirolari horiek hezi baldin badira, gizarte heteropatriarkal batean, beraiek ere rol horiek azaleratuko dituzte.

2 PARTAIDEA: Baina kirolariak ez dute sustatzen...

1 PARTAIDEA: Bai kirolari, bai entrenatzaile eta klubak ere.

4 PARTAIDEA: Sistema baldin badago horrela eta zu bazaude hezituta horrela, horrela izango da.

2 PARTAIDEA: Ea baina pertsonak berez, osea ikustera doazten pertsonak igual nahiago dute gizonezkoak ikusi, baina kirolariak berez ez; hau da, nik jolasten dut errugbian eta etor dadila nahi duena.

Ez dut ulertzen ze aspektutan hitz egiten duzuen.

3 PARTAIDEA: Baina ikusi duzu gure ekipoan bakarrik, esan nahi dut, jokalariek askok duten jarrera ez da gizartearen isla.

2 PARTAIDEA: Baina gure taldean? Nesken taldean?

4 PARTAIDEA: Aparte.

2 PARTAIDEA: Nesken taldean ere esaten da mutilak hobeak direla?

1 PARTAIDEA: Bai, behin baino gehiagotan entzun izan da "entrenatuko dugu mutilekin" eta gero entrenatzen dugu mutilekin eta ez digute baloia pasatzen.

3 PARTAIDEA: Adibidez, hori.

4 PARTAIDEA: Adibidez ere, nola baloratzen dituzte haien partiduak eta gure partiduak.

1 PARTAIDEA: Grada ikustearekin baduzu erantzuna.

2 PARTAIDEA: Baina nire ustez ezin dira testuinguruak konparatu. Egia da, biologikoki haiek indar gehiago daukatela, baina horrek ez du esan nahi du txarragoak garenik edo gurea gutxietsi egin behar denik.

4 PARTAIDEA: Nik ikusten dut, bi errugbi diferente direla.

2 PARTAIDEA: Baina horregatik, nire ustez ezin dira konparatu.

1 PARTAIDEA: Baina zergatik jendeak nahiago du, haiena eta ez gurea? Ba hori erakutsi dietelako, erakutsi dietelako askoz politagoa dela bortitzagoa izatea.

3 PARTAIDEA: Eta, adibidez errugbi 7 ez da hain bortitza, ez 15a bezalako, eta honelako modalitatean ez dago hain beste arretan indarrean baizik eta abiaduran edo beste metodo batzuetan, baina berez zuri ez zaizu jokaldi bat ikusgarriagoa irudituko tipoaren abiaduragatik baizik eta jokaldiagatik. Azkenean, bertan parte hartzen duten taldeak, berdina direlako beraien artean.

Barkatu moztu zaitut.

5. ***GALDERA:*** *Eta gaiari sakontasuna emanaz, edo ikerketa gaiari txertatuz, ze motatako estereotipoak atxikitzen zaizkio errugbiari? Edo beste hitz batzuetan, zeintzuk dira hauek?*

4 PARTAIDEA: Errugbiari orokorrean?

“Korrokada”

Taldea: HORI!

4 PARTAIDEA: Bestia batzuk garelako.

1 PARTAIDEA: Edo bakarrik jendea handia eta indartsua jolastu dezakeela errugbian.

3 PARTAIDEA: Nik ez dakit ze punturarte den, oso bordea naizelako batzuetan edo errugbian jolasten dudalako. Baina nik adibidez nabaritzen dut nire koadrilan mutil batzuk ezagutzen ditugula edozerengatik eta niri testualki esan didate “Nik Miriamekin sartuko nintzatekeen baina zurekin ez izugarritzko ostia emango didazulako” edo bestela “plakatuko didazulako”, eta benetan ez ditut inoiz jo.

1 PARTAIDEA: Nik lagun askorekin (ez dakit ni errugbian jolasten dudalako edota nahiko bortitza izan naitekeelako), baina eman daiteke non nik nire lagunekin nagoen eta esaten diet errugbian aritzeko eta beti esaten didate “ez esk nik horretarako ez naiz kapaza”, nik beti erantzuten diet “ikusitako nolakoa naizen ni, zu baino txikiagoa eta berdina du”, mundu guztiarentzako kirola da.

2 PARTAIDEA: Hori da gertatzen dena kirol honekin, ez da balet bezalako perfil bakarra onartzen dela, gurean daude pertsona guztiarentzako estilo eta lekuak; altuak, txikiak, lodiak, argalak...

6. **GALDERA:** *Eta azaleratu ditugun rol hauekin edota pertzepzio hauekin zuek uste duzue gizartean atxikituta ditugun feminitate rolekin bat datozela?*

3 PARTAIDEA: Berriro?

IKERTZAILEA: *Orain azaleratu dugu errugbian jolasteko izan behar zarela indartsua, gogorra... etab Uste duzue horiek guztiak harremana dutela gizartean dagoen feminitate rolaekin?*

3 PARTAIDEA: Nik uste dut gizarteak duela perfil bat eta errugbiak dituela guztientzako perfilak, pertsona errealean perfilak.

1 PARTAIDEA: Eta adibidez, nik uste dut horregatik nire lagunei esaten diodanean “etorri zaitetz errugbira” esaten didate “ez ni txikiegia naiz” errugbia ez dutelako ikusten rol horien barruan, esan nahi dut.

7. **GALDERA:** *Orduan ere, uste duzue hedapenean zailtasunak dituela? Hau da, nolabaiteko indartsu horiek edota askotan komentatzen den “machorra” horien figura hori hedapenean zailtasunak jartzen dituela?*

3 PARTAIDEA: Bai.

2 PARTAIDEA: Bai.

1 PARTAIDEA: Bai.

4 PARTAIDEA: Bai.

3 PARTAIDEA: Eta nik uste dut hor lan bat dagoela ikustarazteko, guk oso argi ikusten dugula estereotipo guzti horiek kendu behar direla, guk edozein perfil zein aurpegi onartzen dugulako, baina gizarteak ez du horrela ikusten.

4 PARTAIDEA: Nik argi daukat.

8. **GALDERA:** *Nola sentitzen duzue errugbi jokalaria moduan (era pertsonalagoan), jorratutako gaiak; hau da, diskriminazioa, estereotipoak...*

3 PARTAIDEA: Kontatuko dizut anekdota bat.

Gu egon ginen entrenatzen eta hurrengo egunean geneukan partidua, ligako gure azken partidua eta orduan geunden baloiak aukeratzen, partidua jolasteko ba baloirik onena (horrek beti laguntzen du jolasten). Ba etxerantz gindoazela gurutzatu ginen mutilen ekipoko batekin eta esan zigun “aizue, baloi hau ezin duzue eraman (gure partidua zen igandean eta haiena zen larunbatean) gu bihar daukagulako partidua eta eskatu dute baloi hau bertan egotea eta beraz, egon behar dira Gamarran” “ah bueno ba bale, atera ditzakegu bihar?” “bai, bai ez dago arazorik” eta horretan geratu ginen, bueltatu genion baloia, Gamarran geratu zen eta hurrengo egunean hartu genuen.

Ba nik hartu nuen baloia eta eraman nuen nire etxera (larunbateko partidua eta gero), eta hortik, bost minututara, Itziarri deitu zioten eta kriston errieta bota zioten ze baloi hori omen zen, mutilak jolasteko “división de honor” igoaldia, (jada partiduak jolastuak zituzten eta ez zituzten partidu gehiago jokatu behar) eta galdu zituzten partiduak, ez zuten aukera minimorik igotzeko eta Gamarran ez zituzten partidu gehiagorik jolastuko.

Emakumezkoen Errugbiaren Maskulinizazioa

Eta hori ezin zela egin eta ea non nengoen ni baloia bueltatzeko, nik argi izan nuen nire etxean nengoela eta ez nintzela bertatik aterako baloia bueltatzeko asmoz.

Eta hurrengo egunean, jokatu genuen gure partidua eta tipoa zegoen hortik, eta noizbehinka (gu berotzen) gerturatzzen zen baloia zegoen begiratzeko eta azkenean, jolastu genuen partidua beste baloi batekin, azkenean ez zigutelako utzi baloi hori erabiltzen eta bukatu genuen partida eta zegoen entrenatzaileekin hitz egiten, etorri zen tipoa eta jarri zen begira, bueno hobeto esanda ikuskatzen eta ia baloiaren bila etortzen da (gure aurrean).

Baina “una cosa tan estúpida como un balón”.

1 PARTAIDEA: Islatzen duena, bereizketa, diskriminazioa ... jorratutako gaiak hain zuzen ere.

4 PARTAIDEA: Klubak egiten duen zeozer mutilentzat egiten du, A-rentzako gainera.

1 PARTAIDEA: Clubeko beste diskriminazio kontu bat egon zen, bueno eta ematen da urtero. Neskak suposatzen da pasatu behar direla Sub 14tik Sub16ra eta gero, seniorrera igo eta nik ez dakit, baina oso neska gutxi ezagutzen ditut azkenean Sub16ra igotzen direnak, baina nire kasuan adibidez ez ziguten utzi igo Sub16ra lehendabiziko urtean, gero Seniorrera igo behar ginenean bai baina lehenengo urte horretan, ez ziguten utzi. Nik ulertzen dut, baina haiek esaten dute hor mutilak asko aldatzen direla eta oso indartsu jartzen direla eta guri min handia eman ahal digutela, eta igual hori gerta daiteke kasu batzuetan baina ez nire kasuan, ni nintzen nire taldeko asko baino handiagoa (eta elkarrizketan ez da entzungo baina ni naiz tipa nahiko handia), ni nintzen nire taldeko asko baino askoz handiagoa. Ba ezerrez, ni geratu nintzen 3 urtez Sub14an.

3 PARTAIDEA: Bai, badaude nolabaiteko detailtxo horiek.

1 PARTAIDEA: Edo egon ziren (aurten gainera izan zela) entrenamendu bat grabatzen eta argazkiak ateratzen eta haiek ari ziren entrenatzen eta gu ari ginen entrenatzen baita eta argazki baterako behar zuten jendea egiteko mele bat. Orduan, etorri zen eta esan zigun “ e gauza bat etorri zaitezke argazki bat ateratzera”, modu honetan, entrenamendu guztia moztuz eta orduan, entrenatzaileak esan zien “pues vale” baina gero erantzun zion besteak “niri beldurra ematen dit mutilen entrenatzaileari esatea entrenamendua mozteko” eta orduan gureak erantzun zion “a mila esker, baina orduan guri erraztasun osoz moztu ahal diguzu ezta?”.

4 PARTAIDEA: Edo mutilek gure zelai oso hartzen dutenean bezala.

3 PARTAIDEA: Bai, badaude adibide pilo eta nik ez dakit ze punturarte den pertsonala adibidez nik kontatu dudana edo Itziarrek kontatu duena oso zuzenki dago lotuta ze pertsonarekin ari zaren, baina uste dut ere horren aurrean klubak hartu beharko zituela neurri gogorragoak. Zeren egia da, zuk pertsona bat ezin duzula aldatu, zeren pertsona bat ez badu aldatu nahi ba ez baina talde hori gidatzen duenaren politika agian bai.

1 PARTAIDEA: Arbitroek gurekin askotan duten jarrera askotan da ez da serio, guregana etorri eta badirudi azaldu behar dizkigutela arau guztiak eta orduan, guk ez dakigula ezer ez. Nik ikusi nahiko nuke, horietako arbitro bat (guri tokatzen zaizkigun horietako bat) mutilengana joatea eta ea zer esaten duten.

2 PARTAIDEA: Bai eta askotan hurbiltzen dira, askoz hurbilago eta forma maitekor batean guregana, eta gainera, arbitro guztiak mutilak hori ere puntu garrantzitsua izan daitekeena.

9. **GALDERA:** *Beraz, zuen ustez ondo dago ikusita gizartean emakume batek errugbian aritzea?”*

3 PARTAIDEA: Uff, segun eta gizartearen ze taldetxo hartzen duzun.

1 PARTAIDEA: Adibidez hori gurasoen aldetik askotan ikusten da, neska bat sartzen denean errugbian ez zaie gustatzen. Nik ezagutzen dut nirekin jolasten zuen tipo bat, bere arreba txikiak nahi zuen jolastu eta bere gurasoak esaten zioten ezetz.

3 PARTAIDEA: Niri adibidez hasieran, beste aukera batzuk proposatu zizkidaten baina nik esan nien ezetz hori probatu nahi nuela, bueno probatu nahi baduzu ondo dago baina urte osoa jarraitu.

10. **GALDERA:** *Ta zuek igual uste duzue, mutilak izango bazinaketen holako jarrerak ez zenituztela izango?*

3 PARTAIDEA: Seguru

4 PARTAIDEA: Absolutamente

2 PARTAIDEA: Adibidez askotan esaten duzunean errugbian jolasten duzula, asko aurpegi arraroak jartzen dituzte, harrিতuta egongo balira bezala. Nik uste dut, nola holako neska batek ahal duen jolastu errugbira.

1 PARTAIDEA: Lehen esan duguna, imajinatzen dugu errugbi jokalaria bat handia, indartsua...

4 PARTAIDEA: Super machorra eta super grosera.

11. **GALDERA:** *Ze nolako etorkizuna opa zaio emakumezkoen errugbiari?*

2 PARTAIDEA: Ba depende jendartea nola dagoen.

4 PARTAIDEA: Egia da ere, azkeneko urteotan hobetzen ari dela eta ekipo gehiago ari direla sortzen. Hala ere, nik ez dakit zein heinean den klubei emakumezkoen taldeak izatea interesatzen zaielako edo benetan gauzak aldatzen ari direlako.

1 PARTAIDEA: Hori egia da, orain mailaz igotzeko behar dituzte edo talde kadeteak edota emakumezkoen taldeak, orduan behar dute, orduan kasu askotan.

2 PARTAIDEA: Eta kasu askotan, gu beti egoten gara hor jendeari bultzaka, jende asko behar dugula eta hori azkenean mutilei ez zaie gertatzen eta hori azkenean da, jendarteak segun nola ikusten duen ez baldin badugu lortzen inon jendarteak emakumezkoen errugbia hobeto ikustea edo normalizatzea ez dugu inoiz lortuko jendea animatzea.

3 PARTAIDEA: Ez dugu komentatu kasu bat eta nik uste dut hau ere nahiko adierazgarria dela, errugbi barneratzailea mundialean neskak ez daude onartuta eta hemen Gasteizen egin izan da saiakera (ulertua daukadanez) ba neskek jolasteko aukera izateko, baina azkenean, araudiak ez du usten.

1 PARTAIDEA: Eta hori errugbi bar-eratzaila dela.

4 PARTAIDEA: Baina soilik gizona koentzat.

Orduan pentsa dezakegu, etorkizun hobea opa zaiola emakumezkoen errugbiari baina ere batetik, klubei ondo etorri al zaielako eta bestetik, ondo geratzen delako ere talde batek hori izatea. Baina uste duzue gizartea aldatzen den heinean, edo espero dugun berdintasun horretara hurbiltzen garen bitartean, emakume gehiago hurbilduko direla errugbira?

3 PARTAIDEA: Ez dakit, nik uste dut dela gehiago (igual da nik izan dudana esperientzia) zu sartzen zarenean errugbian gero hobeto sentitzen zara, nik ziurrago sentitzen naiz nire

Emakumezkoen Errugbiaren Maskulinizazioa

buruarekin eta berdintasunera hurbildu baino gehiago, nik uste dut errugbira hurbiltzean (segun eta ze ekipotan edo ze girotan) zuk zure burua gehiago maitatuko duzula.

2 PARTAIDEA: Ba nik uste dut baietz, zeren azkenean beti esanda errugbia dela gizonetzkoen kirol bat eta berdintasun horretara goazen heinean eta kirolen rolak kentzen doazen heinean lortuko dugu.

4 PARTAIDEA: Nik uste, momenturen batean heltzen bagara gizarte transfeminista batera bai, baina puntu horretara iritzi arte lanketa dagoela eta nik espero bizarda, baina ez dut uste.

IKERTZAILEA: *Bueno ba mila esker, bertan parte hartzeagatik*

EZTABAIDA TALDE HETEROGENEOA

1 partaidea: 21 urteko emakumea, Gasteiztarra.

2 partaidea: 26 urteko emakumea, Gasteiztarra.

3 partaidea: 22 urteko gizona, Donostiarra.

4 partaidea: 23 urteko gizona, Lekeitiarra.

5 partaidea: 24 urteko gizona, Gasteiztarra.

6 partaidea: 25 urteko gizona, Gasteiztarra.

1 GALDERA: *Ba al daude gizonetzkoentzako kirolak eta emakumezkoentzako kirolak?*

5 PARTAIDEA: Nik uste dut ezetz; azken finean, kirolak guztientzako dira.

1 PARTAIDEA: Guztientzako dira, baina badaude kirol batzuk, enfokatuagoak daudenak gizonetzkoentzako edota emakumezkoentzako. Edo ez daukagula ohitura emakumeak kirol horietan ikusteko.

6 PARTAIDEA: Igual bada ohitura, badaude kirolak maskulinizatuak daudenak eta beste batzuk, feminizatuak daudenak, ez nago ados baina hori hala da.

5 PARTAIDEA: Baina azkenean kirol bat ondo pasatzeko da eta ba hori kirola egiteko, eta bere funtzan ez du zertan gizon edo emakumezkoa izan behar, nik horrela ikusten dut behintzat.

1 PARTAIDEA: Hori teorian izango litzateke, baina praktikan banaketa hori existitzen da.

4 PARTAIDEA: Nik ez nago ados, kirolik egon behar den sexu baterako edo ez, niretzako kirola kirola da, badaude kirola non segun ze motatako gorputza daukazu (eta egia da, normalean mutilak handiagoak izaten garela) eta ba adibidez errugbia gaur ikusten dugun modu horretan horixe da ez. Baina hori kirol guztietan ematen da, txikiagoa dena abildade desberdinak izango ditu kirolaren baitan. Baina orokorrean nik ez dut uste, ze sexukoa zaren kirolean izan beharko duenik hain beste garrantzia. Hau da, kirolak ez du sexu banaketa.

3 PARTAIDEA: Guk pentsa dezakegu X, bota ditzakegu kirolaren inguruko ideia koordinatuak baina bukaeran gizartean ematen dena oso desberdina da. Adibidez, Donostiako estropadetan, emakumeak ibiltzen direnean ez doa inor ikustera eta gero gizonak ateratzen direnean jende pilo dijoa. Bukaeran kirol batzuetan normalizatu dago emakumeen presentzia eta beste batzuetan ez.

2 PARTAIDEA: Ba, bai guztiz ados.

4 PARTAIDEA: Nik uste dudana da hori egia dela eta hori ere futbolearen ematen dela, baina nik ez dut uste kirol baten funtsa izango denik jendea ikustea joatea. Kirolaren funtsa da, izan daiteke kirola berez egitea, izan daiteke dibertitzea, izan daiteke lokomozioa martxan jartzea... umeentzako izan daiteke adibidez garatzeko beste modu bat, bai buru mailan bai gorputz mailan eta funtzio hori betetzen duen bitartean nik uste kirolak betetzen duela bere rola, eta orduan izan daiteke negozioa egiteko, izan daiteke publizitatea egiteko, zehazki jendea ikustera joateko, baina ikustea ez joatea ez du esan nahi hori, eskupilotara adibidez, ez da inor joaten eta hori ez du egiten kirol txarragoa ez hobea.

Maila horretan ez du egiten sexuari bideratuagoa egotea, jendea ikustera joatea edo ez eta hor daukazu Voleyball-ean nesken partiduak ikustera gehiago joaten dira, baina hori ez du esan nahi Voleyball-a neskentzako bideratuagoa dagoenik gizonetzat baino.

3 PARTAIDEA: Hombre publiko mailak ez du zehazten daukan onargarritasuna, baina ni hasten banaiz gimnasia erritmikoa egiten eta kontatzen badiet nire lagunei gimnasia erritmikoa egiten nagoela barre egingo dute. Hor dago koska nire ustez, bukaeran gizarteak ematen dion onarpen maila generoari lotuta hor dago ere.

5 PARTAIDEA: Baina, egin ahal duzu.

3 PARTAIDEA: Bai, egin ahal dut baina ondorio desberdinak izango ditu niretzat.

2. GALDERA: *Orduan zuen ustez existitzen da diskriminaziorik emakumeekiko kirolean? 4;41*

2 PARTAIDEA: Segun ze zentsutan bai, baina diskriminatu hitz hori agian zehaztu behar da zer den, zentsu horretan ez. Zergatik atletikeko mutilak ikustera joaten dira jende pilo baina neskak irabazten dutenean ez gara enteratzen, zentsu horretan igual diskriminazio hitza gehitu daiteke.

3.GALDERA:*Hori egia bada, nork sortzen du honako bereizketa? Kirolariek edota gizarteak? 5,45*

2 PARTAIDEA: Gizarteak berak sortzen du diskriminazio hori, gizartea horrela antolatuta dagoelako, horrela eraikita dagoelako, azkenean estereotipo zein aurreiritzi guztiekin.

5 PARTAIDEA: Bai, eta batez ere komunikabideek.

2 PARTAIDEA: Bai, horrek laguntzen du hori areagotzeari.

1 PARTAIDEA: Azkenean, gizarteak egiten du, guk geuk egiten dugu.

4 PARTAIDEA: Nik horrekin ados nago, baina baita badago kirol barneko inplikazioa ere. Adibidez, lehen komentatu duguna “gimnasia erritmikoan sartzen banaiz Ikastolakoek gero barre egingo didate”. Gauza da gizartean, komunikabideetan nola islatzen den, ze nolako prioritatea jartzen die gauza batzuei bai eta beste batzuei ez hori nahita izanda.

Baina beste gauza bat nire ustez, guk egin ditzakegun gauzak gure buruan eta hor erru guztia ez dauka gizarteak, nik uste dut hor ere norberak duela azkeneko hautua.

Badago komunikabideena, zalantzarik gabe baina ez dut uste bidezkoa denik erru guztia hor botatzea, nik uste dut ere barruko hori ere aldatu behar dugula.

1 PARTAIDEA: Gure eskutan dago hori aldatzea, baina guk ikasi egin duguna da sozietateak erakutsi egin diguna eta sozietatea irakutsi diguna da; gizonak ezin dutela gimnasia erritmikoa egin eta egiten baldin badute barre egiten dugu, haien kirola ez delako. Baina egia da gure eskutan dagoela, kontziente izatea eta aldatzea.

2 PARTAIDEA: Eta nik aipatu dudanean gizartea, esan nahi nuen “gu”, pertsona bezala gu.

4. GALDERA:*Bueno eta gaiari sakontasuna emanez edota ikerketa gaiari txertatuz, ze motatako estereotipoak atxikitzen zaizkio errugbiari? Beste hitzetan, zeintzuk dira hauek? (7:34)*

6 PARTAIDEA: Ba hori, kirol maskulinoa, fisikoa, gogorra.

2 PARTAIDEA: Kriston indarra izan behar duzula.

5 PARTAIDEA: Batez ere, gizonazko bideratuta.

1 PARTAIDEA: Izan behar zarela bortitza, aurkariari beldurra emateko.

3 PARTAIDEA: Errugbiaren paradoxa hori ezta “Nos damos de ostias y luego nos tomamos unas cervezas”, ba oso maskulinoa “lo solucionamos rapido” bezala.

5. GALDERA:*Bueno eta orain aipatu ditugun horiek, uste duzue bat al datozela gizarteak azaleratzen dizkigun feminitate rolekin? 8.34*

5 PARTAIDEA: Ez.

6 PARTAIDEA: Justo kontrakoa izango zen.

5 PARTAIDEA: Estereotipoa da, neska argala, polita eta hauskorra igual ere.

3 PARTAIDEA: Hori moldatzen da igual emakumearen estereotipo konkretu batetara, la machorra, la mujer grande. Hau da, ihes egiten duela, estereotipo orokorretik baina bukaeran beste emakumearen rolekin batzen da.

6. GALDERA:*Estereotipoen hauen eragina ba al dator bat bere hedapenak duen zailtasunekin? 9.33*

2 PARTAIDEA: Bai, claro. Hori azkenean, neska argal txiki bat ez da animatuko errugbira jolasten, agian bai e, baina orokorrean indarra ez du, ez du inoiz kirol egin seguraski ez da animatuko.

1 PARTAIDEA: Nik uste dut azkenean, saldu diguten ideiarengatik azkenean emakume asko esango dute “bua nik ez dut probatuko ze jolasteko izan behar zara, indartsua, altua, machorra”, orduan horregatik jende asko atek jartzen dizkio bere buruari. Baina bueno hori ya pertsonaren arabera, probatzea.

5 PARTAIDEA: Nik uste dut ere, pertsona bakoitzeko dela, zure buruan igual pentsatzen duzu hau ez da nire kirola baina esaten baduzu probatuko dut, azkenean probatu egingo duzu eta hori ez du zertan izan behar estereotipoarena. Baina egia da, igual emakume baterako, beste kirol batzuetara enfokatuagoak daudela.

4 PARTAIDEA: Nik honetan parte hartu nahiko nukeen, nire ustez, kasu hau bi generoetan ematen da. Mutilekin ere gertatzen da, nik adibidez errugbilari naiz eta askok esaten didate

txikiegia naizela errugbian aritzeko, baina bai egia da, eta onartu behar da hori neskontzat gogorragoa dela, eta azkenean, hori errugbia zikintzea dela, ubeldurak, zauriak... eta orduan emakumeek gehien pairatzen dute hori.

7.GALDERA: *Positiboa ikusten duzue zuek emakumeak errugbian jolastea? 11.50*

2 PARTAIDEA: Bai noski, nahiz eta, txikia argala izan.

6 PARTAIDEA: Da niretzako ere beharrezkoa, berdintasun erreala lortu nahi badugu, eta orduan eremu hauetan non emakumea "ez dago" hain ondo ikusia ba, beharrezkoa dugu haren presentzia.

2 PARTAIDEA: Eta saiatu ere emakumeak egoten, baina ez denak handiak eta indartsuak, hots, prototipo ezberdinak ikustea ere posible dela.

6 PARTAIDEA: Orain hitz egiten ari garen moduan, duela gutxi Madrilen emakumeek sortutako futbol talde bat infantilen liga irabazi zuen, baina mutilez sortutako liga batean.

2 PARTAIDEA: Hori errugbian?

6 PARTAIDEA: Ez futboleant, baina gizonezkoen liga batean emakumez sortutako talde bat, kontu txiki bat da baina handia aldi berean.

8. GALDERA: *Orduan, lehen komentatu duzuen, komunikabideak, gizarteak zuek zer uste duzue aldatu beharko zela estereotipoei buelta emateko? 13.42*

2 PARTAIDEA: Gizartea, goitik behera, errotik.

1 PARTAIDEA: Azkenean dena, komunikabideek bakarrik egiten dute publikoa baina azkenean eragina dute ere emakumeak erabatekoak izateko eta gizonezkoak besterakoak.

3 PARTAIDEA: Eta bukaeran ere, kirolean ulertzen badugu, txapelketa kontsumista normala da, jendeak jarraitzea talde konpetitiboenak, gehien irabazten dutenak, indartsuak eta errugbiaren munduan normala da, gizonezkoenak izatea talde nazionala edo hoberenak. Orduan, aldatzen badugu agian prisma hori eta arreata jartzen badugu, jokoaren edertasunean eta beste gauza batzuk bilatzen baldin baditugu kirola ikusterakoan, agian hasi al gara baloratzen edo hartu dezake pisu gehiago gizartean emakumeen kirola.

9. GALDERA: *Bueno, eta bukatzeko ze nolako etorkizuna opa zaio emakumezkoen errugbiari? 14.54*

1 PARTAIDEA: Beldurra dioten emakume horiek animatzea, jakitea emakume horiek errugbia ez del estereotipo bat, baizik eta kirola, ondo pasatzeko kirola alegia.

4 PARTAIDEA: Nik uste dut, etorkizun ona opa zaiola, azkenean berriro esango dut ez dago bateratua ospea izatea eta etorkizuna izatea. Hedabideak duten ikuspegiagatik edota jendeak asko ikustera joateagatik ez badugu horregatik sailkatzen baizik eta, jendea etortzen delako probatzera, gazteagotik hasten direlako bai mutilak bai neskek. Kasu honetan, nesken errugbiari nik uste dut etorkizun oparoa dagokiola.

5 PARTAIDEA: Eta gainera, geroz eta gehiago entzuten da ez?

4 PARTAIDEA: Geroz eta gehiago ikusten delako, berdintasunean pausu asko ematen direlako, ez dakit gauzak horrela ikusita, etorkizun hobea du.

IKERTZAILEA: Bueno ba mila esker, eta honekin guztiarekin bukatu dugu eztabaida taldea.

TAULA

NÚMERO DE LICENCIAS FEDERADAS DE DEPORTISTAS DESGLOSE POR SEXO 2016					
Federaciones Vascas	Mujeres	Hombres	Total	%mujeres	% licencias
ACTV. SUBAC.	280	1.712	1.992	14,06	1,20
AJEDREZ	299	2.412	2.711	11,03	1,64
ATLETISMO	1.047	1.693	2.740	38,21	1,65
AUTOMOVILISMO	52	745	797	6,52	0,48
BADMINTON	111	174	285	38,95	0,17
BALONCESTO	3.456	4.708	8.164	42,33	4,93
BALONMANO	1.315	2.549	3.864	34,03	2,33
BEISBOL Y SOFTBOL	75	89	164	45,73	0,10
BOLOS	345	2.082	2.427	14,22	1,47
BOXEO	82	549	631	13,00	0,38
CAZA	108	17.806	17.914	0,60	10,82
CICLISMO	246	7.637	7.883	3,12	4,76
DEPORTES AÉREOS	13	489	502	2,59	0,30
DEP. INVIERNO	1.148	1.890	3.038	37,79	1,83
DXT ADAPTADO	90	397	487	18,48	0,29
ESGRIMA	24	89	113	0,00	0,07
FUTBOL	2.979	23.957	26.936	11,06	16,26
GIMNASIA	621	18	639	97,18	0,39
GOLF	5.434	10.906	16.340	33,26	9,87
HALTEROFILIA	35	151	186	18,82	0,11
HERRI-KIROLAK	109	808	917	11,89	0,55
HIPICA	928	447	1.375	67,49	0,83
HOCKEY	157	366	523	30,02	0,32
JUDO Y DD.AA.	257	1.154	1.411	18,21	0,85
KARATE	471	975	1.446	32,57	0,87
LUCHA Y SAMBO	33	125	158	20,89	0,10
MONTAÑA	9.156	23.388	32.544	28,13	19,65
MOTOCICLISMO	9	465	474	1,90	0,29
NATACIÓN	954	1.501	2.455	38,86	1,48
PADEL	1.096	2.088	3.184	34,42	1,92
PATINAJE	137	390	527	26,00	0,32
PELOTA VASCA	171	2.257	2.428	7,04	1,47
PESCA Y CASTING	43	1.332	1.375	3,13	0,83
PETANCA	32	164	196	16,33	0,12
PIRAGUISMO	211	872	1.083	19,48	0,65
REMO	503	1.975	2.478	20,30	1,50
RUGBY	145	1.452	1.597	9,08	0,96
SQUASH	28	199	227	12,33	0,14
SURF	571	2.990	3.561	16,03	2,15
TAEKWONDO	172	416	588	29,25	0,36
TENIS	189	696	885	21,36	0,53
TENIS DE MESA	35	291	326	10,74	0,20
TIRO CON ARCO	126	587	713	17,67	0,43
TIRO OLIMPICO	163	2.514	2.677	6,09	1,62
TRIATLON Y DD.CC.	264	2.015	2.279	11,58	1,38
VELA	277	1.130	1.407	19,69	0,85
VOLEIBOL	797	173	970	82,16	0,59
	34.794	130.823	165.617		100,00

*Iturria: Euskadi Erkidegoko Web Gunea